

Mondragon Unibertsitateak Materialen Kongresu Nazionalean parte hartu du

2011/07/19

Uztailaren 5etik 8ra MATCOMP'2011 kongresua egin zen Gironan. Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko, Jon Ander Arakama eta Carlos Carok poster onenaren lehenengo eta bigarren saria jaso zuten, hurrez hurren, Material Konposatuen Espainiako Elkartearen eskutik. Biak Industria Ingeniaritzako Plastikoen Teknologia eta Konposatuen lerroan ari diren euren karrera amaierako proiektuak garatzen. Jon Ander Arakamak “Características a impacto y flexión del compuesto de poliéster reforzado con fibra de vidrio curado mediante ultravioleta” titulua duen lana aurkeztu zuen eta Carlos Carok “Comportamiento tribológico de poli(butilen tereftalato) reforzado con fibra de carbono obtenido mediante Resin Transfer Moulding” lana.



Carlos Caro eta Jon Ander Arakama